

Maite Perez Azurmendi

B maila • 2 saria



Maite Perez Azurmendi beasaindarra nauzue, 2001eko maiatzaren 3an jaioa. Irakurtzea gehiegi gustatzen ez zaidan arren, erraz ateratzen zaizkit hitzak idaztean. Nire idazlanaren gaia zein izango zen argi nuen (heriotza) eta ipuinean hitz hori ez agertzeak gainerako hitzekin jolastea ahalbidetu dit.

Ahal izan dudan guztietan hartu dut parte Beasaingo Idazlehiaketan, baina aurtengoa izan da orain arte jaso dudan sari bakarra. "Orain arte" bai, parte hartzen jarraitzeko asmo baitut.

Txikitatik aritu naizen La Salle Ikastetxean nire azken urtea dela aprobetxatuz, bide luze honetan (jada igarota, motza izan denaren inpresioa dut) bidelagun izan ditudan bai ikaskide, irakasle, bai eta ikastetxea osatzen duten partaide guztiei eskerrak ematea besterik ez dut. Mila esker danoi!

Eta zu, idaztean nik sentitu dudana senti dezazun gonbidatzen zaitut! Gustuko izango duzulakoan...

HERIO BATEN MORROI

Goizeko bederatziak. Kostalderanzko trena hartu dut. Gogoan dut aspaldian hona etorri ginenekoa. Oraindik ere, dolu usainak hemen jarraitzen du. Kutxa txikia zen, herdoildua eta giltzapetua. Gogorra egiten zitzaidan zu bertan zinela jakitea. Hitz goxoek alde egin zutela, zure barnean izango ez nintzela, alboan edukiko ez zintudala jakitea. Hain gogor, hain hotz. Inoiz baino gertuago geunden denok, elkarrengandik. Baliteke samina nolabait leuntzearren. Ez zen hala izan ordea. Mina ezkutatzen saiatu bai, baina han zegoen presente. Hemen dago. Eta pentsatzen jartzerako, zenbat gau igaro ditut ordutik lo egin barik? Antzeman daitekeenez, urteak pasa ahala ero hau ez da inoiz zutaz ahanztiko.

Goizeko bederatziak, kostalderanzko trena. Hondartzak egunero gordetzen dit lekua. Nire txokoa. Eta oraindik ere, belarrira Maite zaitut esaten zenidaneko oihartzuna dut nabari. Erantzuteko nahia. Itsasoari garrasika, lau haizetara. Soberan ezagutzen ditut hemengo ilunabarrak. Baita egunsentiak ere. Baina gezurra dirudi zure itzuleraren zain bizitzak ihes egingo duenik. Egin dezala. Zenbat falta zaitudan jakiteko joan zarela dirudi. Utz iezadazu ilunabar hau hondarretan marrazten, izan ginena izaten jarraitzen dugula ikustearren behintzat. Hala ez bada ere.

Goizeko bederatziak, kostalderanzko trena. Denborak gehiago lagun zezakeen. Ez du batere laguntzen. Gelditzea nahi duzunean ihes egiten du, eta gogoz desira duzunean inoiz ez da

iristen. Egia esan, orain ez dakit zer nahi dudan. Egin dezala nahi duena. Gelditu dadila. Edo beharbada, jarrai dezala bere bidean. Iraganean bizi naiz, etorkizunaren beldur. Minaren erruz bizirik nagoela badakit, bai. Zugandik urrun. Egunero hiltzen bainaiz zure zain. Herio baten morroi. Baina utzidazu une batez hemen geratzen, ni neu ere joan arte. Denborak nahi izan arte. Malko gaziak itsaso gazian. Pauso bat hurrerago.

Tik-tak ordulariak. Goizeko bederatziak, eta berriro. Kostalderanzko trena. Nire beldurrei aurre egitearen beldur naiz. Inork ez dit esan non zauden. Itsasoak ba omen daki. Berak ezkutatzen du kutxa herdoildua. Berak erantzuna. Zalantzak nonahi. Gerora, errutinaren parte izatera pasatuko dira gure argazki gozoaren gainera isuritako malko gaziak, udazkeneko hostoen antzera. Arrats gozo, egun gazi. Mina zaurietan. Hobe itsasora badoaz malkoak. Itsaso zabalean, malkoak txiki.

Gaurkoan ere. Goizeko bederatziak trena aukeratu dut, egunero lez. Zu gertuago sentitzeko beharbada, brisak malkoak lehortzen dizkidan heinean. Esperantzara kondenatua nago ohea hutsik utzi zenuenetik. Zure ezpainei nire lepoa igurtzeaz utzi zutenetik. Hantxe geratu nintzen bihotza esku batean nuelarik, besteaz nostalgia indarrez heltzen nuen bitartean. Zein gogorra egiten zaidan bukaera onartzea. Hanka puntak busti ditut ur gaziaz. Begiak itxi ditut. Senti zaitzakete. Zure hatsa kolkotik behera. Itsu eta isilik egotea erraza da erabat. Eta zailena, zu hemen ez zaudela jakitea.

Kostalderanzko trena? Nola ez, goizeko bederatziak. Jadanik berandu da agur esatea. Eztarriko korapilo sendoak askatzea. Baina nola izan ausart? Nola ahaztu, agurra betirako bada? Eta zenbat da betirako? Askot? Ala gutxi? Denboraren menpe beste behin. Hau da hau ardura denborarena aizu. Zein zoriotsu izan ginen pentsatzea besterik ez dago. Baina nostalgia. Mina. Samina. Une latzenetan, ustekabeen gehien maite duzuna kentzen dizutenean, ohartzen baitzara benetan zenbat maite duzun pertsona bat, benetan zenbaterainoko hutsunea eragiten duen zuga.

Ez naiz sekula nekatuko kostaldeaz. Hondartzaz. Zure, gure hondartzaz. Hatzaren puntaz idatzi dut hondarretan: A&S. Oihukatu dezagun, gurea da! Bizitza oso kapritxosoa dela antzemanda dut aspaldian. Denak bukaera duela ohartu ere. Baina bukaeraren ondoren zer ote dago? Ba al dago zerbait? Pareta txuri bat soilik imajinatzen dut nik. Jakin-mina eta ezina. Eskukada bat hondar hartu eta jaurti dut uretara amorruez. Ez dizut minik eman nahi, baina egin beharra nuen. Momentukoa izan da. Ezin dut gehiago. Arropa kendu ere egin gabe sartu naiz itsasora. Bost axola dit arropa bustitzeak. Zapatak ez. Hor gelditu dira zelatan area gainean. Aurrera, ur gazitan. Baina gerriraino bakarrik. Balantzan, olatuek aurrera egiteko eskatzen didate. Zerumugan ikusten den marra txurira arte. Eta aurreraka egiten dut, olatuek bultzatuta. Itsaso sakonera. Amaigabeko muxuak ezin ditut kendu burutik. Gatzak erre egiten nau. Zaurietan batez ere. Burua makurtu eta ezpainak busti ditut kresalaz. Hotzikara gorputzean. Aurrera egin nahi dut. Oraingoan nik neuk. Inork agindu gabe. Ez eta olatuek ere. Urak ahoa eta sudurra estali ditzan desio dut. Gutxi falta da. Eman gabe geratu ziren muxuak emango ditugu laster, gure besarkadak besarkatu ere. Malkoak, ez dira gaziak itsaso zabalean.